



Maria Telkes

1900-1995

Eguzkiaren erregina

Zer
zor diogu?

Eguzkiaren energia erabiliz etxeak berotu ala hoztu ahal izatea, sukaldatzea edota itsasoko ura edangarri egitea. Bere asmakizunek trantsizio energetikorako bidea eman zuten, energia iturri garbi eta eskuragarriago batekin planeta hobeto baterantz joateko.

Biografia

Aro berri baten sortzea

Maria Telkes 1900.urtean jaio zen Budapesten, Hungarian. Garapen teknologiko handiko sasoia zen eta Maria oso gaztetatik hasi zen hausnartzen eguzkiari buruz: **bazekien argia eta beroa baino onura gehiago ekar zitzakeela**. Hori dela eta, 4 hizkuntza ikasi zituen, gai hari buruz argitaratzen zen guztia irakurri ahal izateko.

Bere ametsak jarraituz, 1920an graduatu zen fisika eta kimika Budapesteko Unibertsitatean. 1924.urtean doktoratu zen bertan, esparru berean. Garai hartan baina, ez zen batere erraza emakume izanda zientzialari bilakatzea. Urtebetez unibertsitate hartan eskolak eman ondoren, mailetak egin zituen, bere ibilbide profesionalari ekiteko.



“
Eguzkia,
lehenago ala
beranduago,
energia iturri
gisa erabiliko
dugu.
Zertarako
itxaron?”
MARIA TELKES

Lehen esperimenduak

Maria AEB-etara joan zen eta Cleveland Clinic Foundation ospitalean hasi zen lanean, energia iturri ezberdinen inguruko ikerketa eta saiakuntzetan. Beste zenbait gauzen artean, garun-uhinak erregistratzeko gailu fotoelektriko bat asmatu zuen. Zehazki, zelulen arteko konexio elektrikoak zituen ikergai, eta horretan ibili zen hamabi urtez.

1937an Westinghouse Electric-en hasi zen lanean ingeniari gisan eta bertan, beroa energia elektriko bihurtzen zuten instrumentuak garatzen hasi zen.

Gerra eta ura

Maria Telkes ingeniari lanetan hasi eta gutxira bigarren mundu gerra hasi zen. AEBetako gobernuaren eskakizunez, **eguzkiaren bidez itsasoko ura gezatzeko gailua** asmatu zuen soldadu estatubatuarrentzat. Gailu hau soldadu orok zeraman bere botikinean eta hari esker bizitza asko salbatu ziren gerra garaian.

Honek, baina, baditu hainbat onura itsasetik gertu bizi eta **edateko ur iturri urriak dituzten komunitateentzat** ere.

Eguzkiaren indarra

Horren ostean, 1939an, Massachusetts Institute of Technology (MIT) ezagunean hasi zen ikerlari lanetan, eta eguzki energiaren esparruan sartu zen buru-belarri. Bertan sortu zuen lehen eguzki sorgailu termoelektrikoa, 1947.urtean.

Mariaren ardura nagusia honakoa zen: eguzki energia nola har, gorde eta bihurtu dezakegu, **erregai fosilen erabilpena erabat ekiditeko**? Oraindik ere bogan dagoen kezka da, dudarik gabe.

Solar Dover etxea

Gerra amaitzean ingeniari lanei ekin zien berriro, eta orduan eraman zuen aurrera bere proiekturik entzutetsuenetako bat, Solar Dover etxea: **eguzki energiaren soilik hornitzen zen lehen etxea**.

Proiektu hau **hiru emakumeen arteko elkarlana** izan zen: Eleanor Raymond arkitektoa, Amelia Peabody eskultorea (berak finantzatu zuen proiektua) eta Maria Telkes bera, zeinek eguzkiarekin soilik berotzen zen lehen kalefazioa diseinatu eta abian jarri zuen.

Horri esker etxeak ez zuten inongo erregai kosterik: ez ekonomik, ezta ingurugiroari dagozkionak ere.

Gehien behar dutenentzat

Ford fundazioak finantzatuta, Maria Telkesek eguzki bidezko lehen labea asmatu zuen. Izan ere, herrialde txiroetako biztanle askok ez zuten (eta ez dute, oraindik ere) sare elektrikora sarbiderik eta labe honi esker jakiak sukaldatu ahal dituzte.

Maria Telkesek diseinatutako labea 205 gradu zentigradura iris zitekeen. Temperatura honek posible egiten ditu pasteurizazioa eta esterilizazioa, jakiak denboran zehar hobeto irauten laguntzen duten prozesuak.

Egungo eguzki-labeak Mariaren diseinuan oinarrituta daude eta elementu garrantzitsua dira kooperazio eta laguntza humanitarioko proiektuetan.

Lorpenen bilduma

Asmakizun hauez gain, nekazariak laboreak lehenago lehertzeko sistema bat ere asmatu zuen eta, beranduago, espazioan muturrerako tenperaturak jasango zituzten materialak garatzen parte hartu zuen.

1952.urtean Emakume Zientzialarien Elkarteak lorpenaren saria eman zion. Dena den, sari eta patente ugari eskuratu zituen bere bizitza guztian zehar. Mariak ez zion inoiz eguzkiaren gaineko lanari utzi, eta hil baino hiru urte lehenago arte aholkulari lanetan jardun zuen eguzki-energiaren laborategi batean.

Hil baino urtebete lehenago bere sorterrira itzuli zen. Bertan hil zen 94 urterekin.